

JAIKIBEL, gure altxorra



3-4KO TALDEAK OSATU ETA ARGAZKI KAMERAREN LAGUNTZAZ, IBILBIDEAN ZEHAR, INGURUARI HADI EGOTEA ESKATZEN DIZUEGU. GOIZ HONETAN IRUDI-EHIZTARI BIHURTZEA PROPOSATZEN DIZUEGU:

1 Txangoan zehar paisaia ezberdinak ikusiko ditugu. Atera argazkia identifikatzen duzuen paisaia mota ezberdin bakoitzari:

- Itsasertzeko paisaia
- Landa-paisaia
- Nekazal-paisaia
- Mendiko paisaia
- Hiriko paisaia
- Hondartzako paisaia
- Paisaia geologikoa
- Bestelakoak

2 Xoxolurra inguruan urtxintxak edo txantxangorriak maiz ikusi ditzakezue isilik joanez gero. Baina Jaizkibelen beste animalia batzuk ere aurkitu ditzakegu, adibidez Irudiak I atalean dituzuenak. Ahal baduzue, isilean hurbildu eta argazkia atera gero gelan identifikatzeko. X batez markatu ikusi dituzuenak.

3 Landareak ikusteko eta argazkia ateratzeko aukera gehiago ematen dute. Ibilbidean landare mota asko ikusiko ditugu, baina denak ez lukete Jaizkibelen egon behar. Irudiak II ataleko zenbat landare aurkitu dituzue (X batez markatu eta atera argazki bana). Bestelako landare edo zuhaitzik aurkitzen baduzu, atera argazkia gero gelan identifikatzeko.

4 Baina Jaizkibel ez dago gizakiaren eraginarengandik salbu. Mendeetan zehar, gizakiak Jaizkibel mendiaz baliatu da elikatzeko, defendatzeko, komunikazioetarako, ... (Ikusi Irudiak III). Eragin antropiko honen seinale den elementurik antzeman duzue? Atera argazkia bat artxiborako.

7 HARA, HONDARTZA BADAÑO-ETA!

JAIZKIBEL IPARRALDEKO ISURIALDE HONETAN ITSASLABARRAK OHIKOAK DIRA. ORAIN IKUSTEN ARI GAREN HARRIZKO HORMA ITZELAK DUELA 40 MILIOI URTE URETATIK ATERA ZIREN ETA, ORDUTIK HONA, JASANDAKO HIGADURAK, FORMA ETA KOLORE MOTA BITXIZ JANTZI DUTE ARROKA.

HONDARTZAN GAUDELA APROBETXATUZ, ONDORENGO GALDEREI ERANTZUNGO DIEGU:


5 Ondorengo elementuetatik zein esango zenuke eragiten duela itsaslabarrean?

- Itsasoa
- Euria
- Haizea
- Gizakiak

6 Zein da harriaren kolorea?

- Horixka
- Gorrixka
- Marroia
- Beltza

7 Hurrengo eskeman ikusten den bezala, itsaslabarretan landaretzaren zonazio bat ematen da.



7.1 Zergatik uste duzu beheko zonaldean ez dela landaretzarik aurkitzen?

- Itsasoarekin kontaktuan dagoen zonalde oso energetikoa denez, lurzorurik ez dagoelako eta baldintza gogorak direlako.
- Lurzoru asko dagoelako
- Itsasoko animaliek jan egingo luketelako.

7.2 Lehenengo bandan aurkitzen den landaretza non hazten da?

- Lurzoruan
- Arroketako pitzaduretan eta arrakaletan

7.3 Zergatik uste duzu ematen dela zonazio hau?

- Beheko aldean itsasoak eragiten duen higadura handia da, baita gazitasuna ere. Itsaslabarrean gora egiten dugun heinean itsasoak eragin gutxiago du, horrela, lurzoruaren formakuntza eta beraz, landaretzaren formakuntza lagunduz.
- Beheko aldean itsasoko olatuek harriaren kontra jotzen du, eta beraz, lurzoru gehiago aurkitzen da, goiko aldean berriz, ez da itsasoko eragina nabaritzen eta lurzoru gutxiago aurkitzen da.

ITSASOARI BEGIRA,

IMAGINATUZ

8 Ikustea zaila bada ere, animalia mota ezberdinak aurki ditzakegu amildegietan eta kostaldetik hurbil. Prismatikoak atera eta ea zorterik baduzuen hauetako animalia ren bat ikusteko:



BI ISURIALDE, BI ERREALITATE

Dakizuen bezala, Jaizkibel hiruki luze modukoa da, alde batek itsasora (ipar-isurialdea) eta besteak Lezo herri-gunerantz emanez (hego-isurialdea). Bien artean ezberdintasun nabariak aurkitzen dira, baina jakingo al zenukete zeintzuk diren esaten?

9 Hego-isurialdean aurkitzen diren mendimazelak...

- Ipar-isurialdean aurkitzen direnak baino askoz ere leunagoak.
- Itsaslabarretan aldapa oso gogorrak izan arren, ipar-isurialdeko aldapak askoz ere leunagoak dira.
- Bi isurialdeek aldapa berdinak dituzte, oso gogorrak.

10 Non esango zenuke aurkitzen dela lurzoru aberatsagoa?

- Iparraldeko isurialdean
- Hegoaldeko isurialdean
- Jaizkibelen ez da lurzoru aberatsik aurkitzen.

// Landarediari dagokionez...

- Hego-isurialdean ez da landaretza masa handirik aurkitzen.
- Bi aldetan aurkitzen den landaretza berdina da.
- Hegoaldean zuhaixkez gain zuhaiztiak ere aurkitzen dira.

12 Isurialde bakoitzeko landaredia ezberdina dela uste baduzu, zein izan daiteke horren zergatia?

- Ipar-isurialdeak itsasoaren eta haize ozeanikoen eragin zuzena pairatzen du, eta bertako landaretza baldintza horietara egokitua dago. Gizakiaren jarduerak ere (soiltzeak, suteak,...) eragin zuzena dute.
- Ipar-isurialdean lurzoru gehiago aurkitzen da itsasoaren eta haize ozeanikoen eraginez eta, beraz, bertan ez da zuhaiztirik agertzen.

IRUDIAK I

Hegaztiak



Anfibioak



Txantxiko arrunta



Apo arrunta



Ur igel arrunta

Narrastiak



Musker berdea



Horma sugandila



Zirauna



Eskulaploren sugea





Suge gorbata duna

Hugaztunak



Irudiak II





Orkidea



Pinguicula lusitanica



Lirioa



Corostia



Caltuna



Hostazurla

Irudiak III



Dorreak



Erreplidea



Antenak



Nekazal eremuak



Baserriak

